



Iraganeko errelatoaz hainbeste hitz egiten den herri batean, hori bezain inportantea iruditzen zait etorkizuneko errelato posibleez hitz egitea, hau da, datozen urte eta hamarkadetan existitu daitezkeen gizarte posibleez gogoetaztea. Azken finean, etorkizuna ez ezik, errelatoek oraina ere moldatu egiten dutelako. Illo horretatik, aldaketa sozialak dimentsio politikotik azertu eta irudikatu ohi ditugu soilik; baina, modu berean, eraldaketa sozial orok jendar-tearen emozio kolektiboetan eragin behar duelakoan nago. Zentzu horretan, krisi ekologikoaren gaia hedatzen doan heinean, nire inguru zabalean bederen, etorkizunarekiko iruditegi katastrofistak hartzen ari diren presentzia kez-kagarria iruditzen zait, hain zuzen ere etsipen kolektiboa ez delako eraldaketa sozial askatzaileekin bateragarria.

Gauzak horrela, euskal funtzionario batek "historikotzat" jo zuen arren, Glasgowko goi bilera dezepzionantea izan dela onartu beharrean gaude (berez, berriz lehertzekoa litzatekeen komentarioa da, ez balitz Ingurumen, Jasangarritasun eta Ekonomia sailburuaren ahotik ateratzen). Berririo ere, bagenekiena gertatu da; ezin dugula Salbazioaren karta

Oker gabilta trantsizio ekologikoa berez emango den prozesua dela uste badugu: trantsizio ekologikoa justua izango da, edo ez da izango

eliteen ustezko ontasunaren esku utzi, alegia. Argindarraren prezioaren igoerarekin gertatzen ari dena ikustea besterik ez dago, nahiz eta gasaren prezioak ere zeresan handia duen horretan.

Hamarkadak daramatzagu ostrukarena egiten, orain guztion ahotan dagoen ebidentzia zientifikoari muzin egiten; aldiz, arazo (eta erronka) erraldoien aurrean gaudela ukaezina da: talka bitzitzen ari gara, kapitalismo globalaren

eta Lur planetaren muga fisiko –krisi energetikoa eta material eskasia– zein biologikoen –klima aldaketa eta biodibertsitate galera– artean. Datozen urte eta hamarkadetan agerikoagoa izango den talka. Prozesu konplexu, poliedriko eta korapilatsua, ezin dena goiburu pare batekin laburbildu.

Edonola ere, hein handi batean, oraindik ere egiten dugunaren edo egiten ez dugunaren arabera izango da etorkizuna. Ulertu behar dugu onerako eta txarrerako ez dagoela klima aldaketa posible bakarra. Zientzialariek ezarritako marra gorriak gaindituko bagenitu ere (eta pertsonalki, egoera ikusita, ez dakit zentzurik ote duen garai aurre-industrialetik 1,5 graduen igoeraren langa ez gainditzearekin jarraitzeak) ez dago amore ematerik, tenperatura globalak igotzen jarraituko luke.

Oker gabiltza trantsizio ekologikoa berez emango den prozesua dela uste badugu: trantsizio ekologikoa justua izango da, edo ez da izango. Horregatik, sektore ezberdinetakoa jendea begirada soziala duen euskal ekologismoa artikulatu eta eraberritzeko egiten ari den saiakera da izan dezakegun berririk itxaropentsuena. ●

ARGIA Abenduak 26, 2021